

Intzidentzia, hilkortasuna,  
biziraupena eta bilakaera  
denboran zehar

# MINBIZIA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN ETA KONTSUMO  
SAILA

DEPARTAMENTO DE SANIDAD  
Y CONSUMO





Intzidentzia, hilkortasuna,  
biziraupena eta bilakaera  
denboran zehar

M.ª ISABEL IZARZUGAZA,  
RUTH MARTÍNEZ,  
COVADONGA AUDÍCANA,  
NEREA LARRAÑAGA,  
ESTHER HERNÁNDEZ,  
M.ª CRES TOBALINA,  
MARTA DE LA CRUZ,  
MERTXE LAVIÑETA,  
RAFAEL HURTADO,  
M.ª CARMEN SAN SEBASTIÁN,  
ANA ROSA DE MIGUEL,  
M.ª JESÚS MICHELENA  
ETA JAVIER LÓPEZ DE LACALLE

# MINBIZIA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN ETA KONTSUMO  
SAILA

DEPARTAMENTO DE SANIDAD  
Y CONSUMO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia


Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2010

Lan honen bibliografia Eusko Jaurlaritzako  
Liburutegi Nagusiaren Katalogoan aurki daiteke:  
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

<b>ARGITARALDIA:</b>	1.a, 2010eko urria
<b>ALE-KOPURUA:</b>	1.000 ale
<b>©</b>	Euskal Autonomiaren Erkidegoko Administrazioa Osasun eta Kontsumo Saila
<b>INTERNET:</b>	<a href="http://www.euskadi.net">www.euskadi.net</a>
<b>ARGITARATZAILEA:</b>	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz
<b>DISEINUA:</b>	Canaldirecto · <a href="http://www.canal-directo.com">www.canal-directo.com</a>
<b>FOTOKONPOSAKETA:</b>	IPAR, S.Coop. Zurbaran, 2-4 (48007 Bilbao)
<b>INPRIMAKETA:</b>	Grafo, S.A. Avda. Cervantes, 51 (48970 Basauri-Bizkaia)
<b>ISBN:</b>	978-84-457-3091-1
<b>LG:</b>	BI 2870-2010





«Eskerrik asko ospitale, klinika eta laborategi publiko nahiz pribatu guztiei eta horietan lan egiten duten profesional guztiei, bereziki, Dokumentazio Klinikoaren Zerbitzuetakoei, haien laguntzari esker erregistroaren estaldura eta, beraz, baita kalitatea ere, ezin hobea baita»

# ESKER ONA

Mila esker minbizia duten eta euren datuak eman dizkiguten gaixo guztiei; horiei esker, gaixotasun-talde garrantzitsu horri buruzko informazio zehatzagoa lortu ahal izango baitugu.

Eskerrik asko minbizia duten gaixoak diagnostikatzen eta tratatzen dituzten profesional sanitario guztiei; horien lanari esker, minbiziaren erregistroako oso baliagarria den informazioa sortzen baita. Eskerrik beroenak patologo eta onkologoei, ezinbestekoak baitira datuak zehazteko eta datuetan kalitate-maila handia lortzeko.

Gipuzkoako Institutu Onkologikoko Minbiziaren Erregistroari eta bertako profesionalei, erregistroaren jardura guztietan etengabe lagundu baitute. Halaber, Osakidetzako Ospitaleetako Minbiziaren Erregistroetan lan egiten duten profesional guztiei ere mila esker, 1995. urtetik aurrera Minbiziaren Euskal Erregistroari datu ugari eskaintzen baitizkiote.

Eskerrik asko ospitale, klinika eta laborategi publiko nahiz pribatu guztiei eta horietan lan egiten duten profesional guztiei, bereziki, Dokumentazio Klinikoaren Zerbitzuetakoei, haien laguntzari esker erregistroaren estaldura eta, beraz, baita kalitatea ere, ezin hobea baita.

Eustat Euskal Estatistika Erakundeari ere eskerrak eman nahi dizkiogu, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriari buruzko datuak eman baitizkigu tasak osatzeko.

Profesional informatiko guztiei eskerrik asko, urte hauetan guztietan behar izan dugun aplikazioa lortzeko babes guztia eman digutelako, baita gertatzen ziren aldaketa eta hobekuntzetara egokitzeko ere.

Espainiako eta beste herrialde batzuetako minbizi-erregistroetako lankideei ere helarazi nahi diegu gure esker ona, askotan lagundu izan baitigute zalan-tzak argitzen edo arazoak konpontzen datuak baliatzeko edo kalkulu estatisti-koak egiteko garaian.

Urte hauetan guztietan egindako lanari edo emandako babesari esker, Minbiziaren Euskal Erregistroak 25 urte betetzea ahalbidetu duten pertsona guztiak ere ahaztu gabe.

# AURKIBIDEA

Orr.	8	<b>AURKEZPENA/PRESENTACIÓN/PRESENTATION</b>
	12	<b>LABURPENA/RESUMEN/ABSTRACT</b>
	16	<b>SARRERA</b>
	20	<b>INFORMAZIO-ITURRIAK, DEFINIZIOAK ETA METODOA</b>
	26	<b>EMAITZAK</b>
	28	<b>Intzidentzia 2002-2006</b>
	42	<b>Hilkortasuna 2004-2008</b>
	54	<b>Minbizia duten helduen biziraupena 2000-2004</b>
	62	<b>Intzidentziaren, hilkortasunaren eta biziraupenaren bilakaera denboran zehar</b>
	63	<b>Lokalizazio guztiak</b>
	81	<b>Hautatutako lokalizazioak</b>
	82	Burua eta lepoa
	84	Urdaila
	86	Kolona
	88	Ondeste-sigma lotura, ondestea eta uzkia
	90	Trakea, bronkioak eta birikak
	92	Larruazaleko melanoma
	94	Emakumeen bularra
	96	Umetoki-lepoa
	98	Umetoki-gorputza eta zehaztugabea
	100	Obulutegia
	102	Prostata
	104	Gernu-maskuria
	106	Ez-Hodgkin Linfoma
	108	Leuzemiak
	110	<b>ERANSKINAK. INTZIDENTZIA ETA HILKORTASUNA</b>
	120	<b>TERMINOEN GLOSARIOA</b>



# AURKEZ PENA PRESEN TACION PRESEN TATION

**RAFAEL  
BENGOA RENTERÍA**

Eusko Jaurkitzaren Osasun  
eta Kontsumo sailburua

Consejero del Departamento  
de Sanidad y Consumo

Minister for Health  
and Consumer Affairs  
of the Basque Government

Duela 25 urte sortu zen Minbiziaren Erregistroa eta, zalantzarik gabe, ideia bikaina izan zen. Minbiziaren Euskal Erregistroan lortzen diren adierazleak lagungarriak izan dira bularreko minbiziaren eta kolon-ondesteko minbiziaren diagnostiko goiztiarreko programei buruz erabakiak hartzeko garaian, baita osasun-planetakoko helburuak ezartzeko ere.

2006. urtean 11.149 minbizi-kasu berri diagnostikatu ziren eta urte horretan minbiziaren ondorioz hildakoen kopurua 5.410 izan zen. Datu horiek ikusita, Euskal Autonomia Erkidegoan minbizi osasun-arazo nagusietako bat dela esan dezakegu, eta gaixotasun hori kontrolatzeko esfortzu handia egin behar da, beraz.

Minbiziaren Euskal Erregistroa sortzeko erronka esanguratsua izan zen; izan ere, Espainian baziren biztanlerian oinarritutako beste minbizi-erregistro batzuk baina probintzia bakarrekoak eta milioi bat biztanle baino gutxiagokoak ziren, eta Euskadin sortu nahi zen Erregistroak biztanleria gehiago hartu behar zuen eraginpean —Autonomia Erkidego osoa—. Beraz, askoz ere konplexuagoa izango zen. Une honetan, Minbiziaren Euskal Erregistroan biztanle gehien duen erregistroa da oraindik ere.

Hasiera hartan minbiziak zekarren arazoa areagotu egin dela egiaztatu dugu urte hauetan guztietan. Jakin badakigu adina arrisku-faktore garrantzitsua dela, eta EAEko biztanleria zahartu egin da; hori horrela izanik, 65 urtetik gorakoak herritarren % 10,4 ziren 1986. urtean eta azkeneko erroldan % 18,6 izatera iritsi dira.

La creación del Registro de Cáncer de Euskadi, hace ahora 25 años, fue un acierto sin ninguna duda. Los indicadores que se obtienen del Registro de Cáncer de Euskadi han facilitado la toma de decisiones sobre los programas de diagnóstico precoz de cáncer de mama y de colon-recto que se han iniciado en los últimos años así como el poder establecer objetivos en los sucesivos planes de salud.

En el año 2006 se diagnosticaron por primera vez 11.149 nuevos casos de cáncer y el número de personas fallecidas en ese mismo año por estas enfermedades fueron 5.410. Esta magnitud del cáncer en el País Vasco supone uno de los principales problemas de salud y se requiere un esfuerzo amplio para su control.

La apuesta por el Registro de Cáncer de Euskadi fue significativa. Aunque en España ya existían algunos otros registros de cáncer de base poblacional, uniprovinciales, y con menos de un millón de habitantes, el que se iniciaba era el que iba a tener una cobertura poblacional mayor —de toda la Comunidad Autónoma— y esto implicaba una complejidad más grande. En este momento, el Registro de Cáncer de Euskadi continúa siendo el de mayor peso poblacional.

También hemos comprobado durante este tiempo, que el problema que representaba el cáncer en aquel momento, ha alcanzado unas cotas mucho más altas. Es sabido que la edad es un factor de riesgo importante y la población vasca ha envejecido, de modo que si los mayores de 65 años representaban en 1986 el 10,4% de la ciudadanía, en el último censo han pasado a ser el 18,6%.

The creation of the Basque Country Cancer Registry 25 years ago was undoubtedly a landmark decision as the indicators provided by this Registry have enabled decision-making as regards the breast and colorectal cancer screening programmes that have been launched over the past years and the establishment of targets for the successive health plans.

In 2006, 11,149 new cases of cancer were diagnosed for the first time, and 5410 people died as a result of this disease. This incidence of cancer in the Basque Country makes it one of the region's main health problems and therefore one which requires a significant effort for its control.

The original decision to establish the Registry was significant as, although some population-based cancer registries already existed in Spain, they tended to be based on a single province, with fewer than a million inhabitants, and this project was intended to have a much wider coverage, namely the whole autonomous Community, with all the complexity that entails. Indeed, the Basque Country Cancer Registry remains the most extensive of its kind in Spain.

During this period we have also seen that the problem represented by cancer at that time has increased significantly. It is well known that age is an important risk factor, and the Basque population has aged to such an extent over this period that people over 65 now account for 18.6% of the population, compared to only 10.4% in 1986.

Monografia honetan intzidentziari (2002-2006) eta hilkortasunari (2004-2008) buruzko azken emaitzak aurkeztu nahi ditugu. Horretaz gain, eta lehen aldiz, oro har, minbiziaren biziraupena aurkeztuko dugu gure herritarren artean 2000-2004 aldian, bost urteko jarraipena egin ostean, eta hautatutako minbizi mota jakin batzuen ere bai. Hori guztia osatzeko, tumore gaizto espezifikoki jakin batzuen eta minbiziaren hilkortasunak, intzidentziak eta biziraupenak Euskal Autonomia Erkidegoan izan duten bilakaera aztertuko dugu, 1986. urteaz geroztik.

Lortutako emaitzen artean, ezin dugu aipatu gabe utzi, oro har, minbiziaren ondoriozko heriotza-tasak murriztu egin direla, bai gizonengan, bai emakumeengan. Gainera, hilkortasuna gutxitu duten tumore gaizto espezifikoei dagokienez zera aipatu behar dugu: gizonen artean biriketako minbiziaren goranzko joera eten egin dela. Alabaina, biriketako minbiziak emakumeengan duen intzidentzia eta melanomaren intzidentzia —gizon nahiz emakumeengan— handitu egin da; horrek esan nahi du bizimodu osasungarriaren aldeko neurriak hobetu egin behar direla. Bestalde, legealdi honetan aktibatu eta indartu diren tabakoaren aurkako politiken garrantzia berretsita geratu dela ere esan dezakegu.

Ondorio gisa, lortutako informazioa oso garrantzitsua dela nabarmendu nahiko nuke eta bide batez, Minbiziaren Euskal Erregistroko profesionalak zoriondu nahi ditut, 25 urte hauetan egindako etengabeko lan emankorrenengatik. Lortutako informazio hori funtsezkoa da gure herritarrek minbiziari buruzko informazio zabala izan dezaten eta Espainiako nahiz nazioarteko beste eremu batzuetako erregistroekin konparazioak egiteko, baita diagnostikoaren eta tratamenduaren eraginkortasuna hobetu eta arriskuak murrizteko ezinbestekoak diren ekintza eta politika sanitarioak zehazten jarraitzeko ere.



En esta monografía queremos presentar los últimos resultados de la incidencia (2002-2006) y de la mortalidad (2004-2008). Además, y por primera vez, se presenta la supervivencia del cáncer en general en nuestra población para el período 2000-2004, con un seguimiento de cinco años, y también la de algunos tipos de cáncer elegidos. Todo ello se completa con un estudio de la evolución temporal de la mortalidad, de la incidencia y de la supervivencia del cáncer en el País Vasco desde 1986, y la de algunos tumores malignos específicos.

Entre los resultados obtenidos es importante mencionar la disminución de las tasas de mortalidad por cáncer en general, tanto en los hombres como en las mujeres. Además de los tumores malignos específicos en los que disminuye la mortalidad, es de reseñar la discontinuidad en la tendencia de aumento del cáncer de pulmón en los hombres. Sin embargo, el aumento de la incidencia del cáncer de pulmón entre las mujeres y del melanoma —tanto en las mujeres como en los hombres—, sugiere que se deben mejorar las medidas que favorezcan una vida saludable, a la vez que confirman la relevancia de las políticas anti-tabaco activadas y reforzadas en esta legislatura.

En conclusión, a la vez que felicito a los profesionales del Registro de Cáncer de Euskadi por estos 25 años de trabajo continuado y productivo, me gustaría resaltar la importancia de la información obtenida. Esta es esencial para mejorar el conocimiento del cáncer en nuestra población y establecer la comparación con registros de otras áreas españolas e internacionales, así como para seguir señalando las acciones y políticas sanitarias necesarias para disminuir el riesgo y mejorar la efectividad del diagnóstico y tratamiento.

In this monograph we present the latest findings as regards cancer incidence (2002-2006) and mortality (2004-2008). Furthermore, and for the first time, the overall survival in the Basque population (for the period 2000-2004), with a follow-up period of five years, is presented, along with the specific values for selected types of cancer. This project is completed with a study of the trends in cancer mortality, incidence and survival in the Basque Country since 1986, together with a similar study for specific malignant tumours.

From the results obtained, we should perhaps highlight the decreased overall mortality rates for both men and women. Furthermore, as regards specific malignant tumours for which mortality decreases, the inflexion in the previous increasing rate of lung cancer in men should be noted. However, the increasing incidence of lung cancer in women, and melanoma in both men and women, suggests that measures to promote a healthy lifestyle should be reinforced, whilst at the same time confirming the importance of the anti-smoking policies introduced and strengthened during this Government's term of office.

In conclusion, whilst congratulating the professionals of the Basque Country Cancer Registry for these 25 years of continual and productive dedication, I would nevertheless like to highlight the importance of the information obtained. This information is vital to improve our understanding of cancer in the Basque population and to be able to draw comparisons with registries from other Spanish and international regions. Furthermore, it allows us to continue to promote those actions and health policies required to reduce the risk and improve the efficacy of both the diagnosis and treatment of this disease.

# LABUR PENA RESUMEN ABSTR ACT

Minbiziaren Euskal Erregistroa 1986an sortu zen. Sortu zenez geroztik igaro diren 25 urteetan, Erregistroak aldian-aldian argitaratu du minbiziak Euskal Autonomia Erkidegoan duen intzidentzia-tasa, bere helburu nagusietako batekin bat etorritz. Orduz geroztik hainbat jardueratan parte hartu du, Espainiako eta beste hainbat herrialdeetako beste hainbat erregistroekin elkarlanean. Euskadiko minbiziari buruzko monografia honek intzidentzia-tasari (2002-2006) eta hilkortasun-tasari (2004-2008) buruzko azken informazioa aurkezten du. Gainera, eta lehen aldiz, biziraupen-tasa kalkulatu da (2000-2004) 5 urteko jarraipena eginez, baita aldi osoko denbora-bilakaera ere.

Intzidentzia- eta hilkortasun-tasa gordinak eta Europako eta munduko biztanleriei doitutakoak kalkulatu dira metodo zuzena erabiliz, sexuen, adin-taldeen, kokapenen eta lurralde historikoen arabera. EAeko 14 urtez gorako helduen biziraupen-tasa hautemana kalkulatzeko, Kaplan-Meier-en metodoa erabili da; biziraupen-tasa erlatiboa kalkulatzeko, berriz, Estèveren metodoa hartu da aintzat. Tasen denbora-bilakaera balioesteko, erregresio loglinealaren ereduak erabiltzen da, urteko aldaketa-ehunekoa eta inflexio-puntuak, halakorik badago, kalkulatzeko ahalbidetzen duena.

Urtean, batez beste, 11.229 kasu berri diagnostikatu dira aldi horretan EAEn. Europako biztanleriari doitutako intzidentzia-tasa 524,8/100.000 izan da gizonen artean eta 279,7/100.000 emakumeen artean, hurrenez hurren, eta gizona/emakumea arrazoaia 1,7 izan da. Gizonen artean prostatan (% 21,3) eta birikan (% 14,7) ageri dira kasu gehien; emakumeen artean, berriz, bularrean (% 27,2) eta kolonean (% 9,4).

El Registro de Cáncer de Euskadi fue creado en 1986. Durante estos 25 años ha publicado, periódicamente, la incidencia del cáncer en la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV), ya que este era uno de sus primeros objetivos. Desde entonces ha participado en numerosas actividades con otros registros españoles y de otros países. Con esta monografía sobre el cáncer en el País Vasco se presenta la última información sobre la incidencia (2002-2006) y la mortalidad (2004-2008). Además, y por primera vez, se ha calculado la supervivencia (2000-2004) con un seguimiento de 5 años, así como la evolución temporal en todo el período.

Se han calculado las tasas brutas de incidencia y mortalidad y las ajustadas a la población europea y mundial con el método directo, por sexo, grupos de edad, localizaciones y Territorio Histórico. Para estimar la supervivencia observada (SO) de los adultos mayores de 14 años en la CAPV se ha utilizado el método de Kaplan-Meier y para la supervivencia relativa (SR) el método de Estève. La evolución temporal de las tasas se ha calculado utilizando el modelo de regresión loglineal que permite estimar el porcentaje anual de cambio y los puntos de inflexión, si los hubiere.

La media anual de casos nuevos diagnosticados en el período en la CAPV fue de 11.229. La tasa de incidencia ajustada a la población europea (TAE) fue de 524,8/100.000 en los hombres y de 279,7/100.000 en las mujeres, siendo la razón hombre/mujer de 1,7. Las localizaciones más frecuentes en los hombres fueron la próstata (21,3%) y el pulmón (14,7%) y en las mujeres la mama (27,2%) y el colon (9,4%).

The Basque Country Cancer Registry was created in 1986, and during these past 25 years it has fulfilled one of its initial goals, namely to regularly publish cancer incidence figures for the Autonomous Community of the Basque Country (ACBC). Since its creation it has participated in numerous activities with national and international registries. The present monograph concerning cancer in the Basque Country presents the most recent incidence (2002-2006) and mortality figures (2004-2008). Furthermore, the survival after five years of follow-up (2000-2004) and evolution over the whole period studied are presented for the first time.

The crude incidence and mortality rates are also calculated, as are the European and world age-standardised rates, by sex, age group, location and province, using the direct method. The Kaplan-Meier method has been used to estimate the observed survival (OS) for adults aged 14 years or older, and the Estève method to calculate relative survival (RS). The loglinear regression model is used to assess the change in these rates with time, thus allowing the annual percentage change and any inflexion points to be determined.

The mean number of new cases diagnosed in the ACBC over the period studied was 11,229, with a European age-standardised incidence rate of 524.8/100,000 for men and 279.7/100,000 for women (a male to female ratio of 1.7). The most common tumour sites were the prostate (21.3%) and lung (14.7%) in men and the breast (27.2%) and colon (9.4%) in women.



Aztertutako aldian, tumore gaiztoek, batez beste, 3.490 heriotza eragin dituzte urtean gizonen artean eta 1.962 heriotza emakumeen artean, hurrenez hurren. Europako biztanleriari doitutako hilkortasun-tasa 247,5/100.000 izan da gizonen artean eta 102,3/100.000 emakumeen artean, hurrenez hurren. Gizonen artean, birika-tumore gaiztoek minbiziarengatik hilkortasun-tasaren % 25 eragin dute, eta, jarraian, kolon-tumoreak nabarmendu dira (% 9,6). Emakumeen artean, berriz, bularreko minbizia (% 15) eta kolonekoa (% 10,7) izan dira heriotza kopurua handienak eragin dituztenak.

Aztertutako aldian EAEn diagnostikatutako tumore gaizto guztien bost urterako biziraupen-tasa erlatiboa % 54,1 izan da (% 50 gizonen artean eta % 60,1 emakumeen artean, hurrenez hurren). Biziraupen-tasa handiagoa da, batetik, 15-44 urtekoen adin-taldean, eta, bestetik, diagnostikatzean, hedapen lokalizatua ageri duten tumoreen artean. Biziraupen-tasa erlatiboa % 80 baino handiagoa da barrabileko minbizia, prostatako minbizia, Hodgkinen gaixotasuna, tiroideko minbizia, bularreko minbizia eta larruazaleko melanoma dutenen artean.

Intzidentzia-, hilkortasun- eta biziraupen-tasen bilakaerari buruzko azterketak aditzera ematen duenez, intzidentzia-tasak gora egin du emakumeen eta gizonen artean, eta, jarraian, tasek egonkortzera egin dute. Minbiziarengatik hilkortasun-tasek behera egin dute gizon eta emakumeen artean. Bost urterako biziraupen-tasa erlatiboak gora egin du Euskadiko Minbiziaren Erregistroa sortu zenez geroztik, nola gizonen (17 puntu) hala emakumeen (12 puntu) artean. Azken aldian, gizonen artean % 32,9tik % 50era hazi da, eta emakumeen artean % 48,1etik % 60era, hurrenez hurren.

Minbiziari dagokionez aipatzekoa da intzidentzia-tasaren neurria bereziki gizonen artean nabarmentzen dela; hilkortasun-tasa, aldiz, txikiagoa da. Lurralde historikoen arabera ez da nabarmentzeko moduko alderik hauteman. Nabarmentzekoa da hilkortasun-tasak behera egin duela nabarmen, eta gainera horrek biziraupen-tasan eragin duela. Biziraupen-tasa lehen aldiz aztertu da, eta interesgarriagoa da kokapen espezifikoaren arabera aztertzen denean, gaixotasun desberdinak nabarmentzen direlako etiologiari, diagnostikoari, tratamenduari eta prebentzioari dagokienez. Taseen denbora-bilakaerari buruzko azterketak, osasun publikoaren arazoa dakarten tumoreak zein diren ematen digu aditzera, zenbaitetan esku-hartze zehatzen jomugan egongo direnak.

La media anual de defunciones por tumores malignos entre los hombres fue de 3.490 y de 1.962 entre las mujeres, en el periodo estudiado. La tasa de mortalidad ajustada a la población europea fue de 247,5/100.000 en los hombres y de 102,3/100.000 en las mujeres. Entre los hombres los tumores malignos de pulmón han supuesto el 25% de la mortalidad por cáncer, seguido por los tumores de colon (9,6%). En las mujeres el cáncer de mama (15%) y el de colon (10,7%) son los que han producido un mayor número de defunciones.

La supervivencia relativa a los cinco años del total de los tumores malignos diagnosticados en la CAPV, en el periodo de estudio, fue de 54,1% (50% en los hombres y 60,1% en las mujeres). La supervivencia es mayor en el grupo de 15 a 44 años y en aquellos tumores que presentan al diagnóstico una extensión localizada. La SR es superior al 80% en el cáncer de testículo, próstata, enfermedad de Hodgkin, tiroides, mama y melanoma de piel.

El estudio de la evolución de las tasas de incidencia, mortalidad y supervivencia ha demostrado un aumento de la incidencia tanto en las mujeres como en los hombres, con una estabilización de las tasas posteriormente. En las tasas de mortalidad por cáncer se observa un descenso en los hombres y en las mujeres. La supervivencia relativa a los cinco años ha aumentado desde el principio del Registro de Cáncer de Euskadi tanto en los hombres (17 puntos) como en las mujeres (12 puntos). En los hombres ha pasado de 32,9% a 50% en el último periodo y en las mujeres de 48,1% a 60% en el último.

La información más relevante con respecto al cáncer viene dada por la magnitud de la tasa de incidencia sobre todo en los hombres, en contraste con las cifras menores de mortalidad. No se han apreciado diferencias importantes por Territorio Histórico. Es destacable el descenso de la mortalidad observado y su repercusión en la supervivencia. La supervivencia, analizada por primera vez, tiene un mayor interés cuando se estudia por localizaciones específicas debido a las diferentes enfermedades que representan en su etiología, diagnóstico, tratamiento y prevención. El análisis de la evolución temporal de las tasas señala aquellos tumores que suponen un problema de salud pública y que, en ocasiones, van a ser susceptibles de intervenciones definidas.

The mean annual malignant tumour-related mortality rate was 3490 for men and 1962 for women in the period studied, with a European age-standardised mortality rate of 247.5/100,000 for the former and 102.3/100,000 for the latter. Malignant lung tumours accounted for 25% of the cancer-related mortality in men, followed by colon cancers (9.6%), whereas breast (15%) and colon (10.7%) cancers were responsible for the largest number of deaths amongst women.

The five-year relative survival for all malignant tumours diagnosed in the ACBC was 54.1% (50% for men and 60.1% for women) over the period studied. Survival was highest in 15-44 years age group and for those tumours found to be localised at diagnosis. The RS for testicular, prostate, thyroid and breast cancer, melanoma of the skin and Hodgkin's lymphoma was higher than 80%.

The study of the evolution of the incidence, mortality and survival rates showed that the incidence increased in both men and women and then subsequently stabilised. A decrease in the cancer-related mortality rates was observed for both men and women. The five-year relative survival has increased in both men (by 17 percentage points) and women (12 points) since the creation of the Basque Country Cancer Registry. Thus, it has increased from 32.9% to 50% in the final period studied for men, and from 48.1% to 60% for women.

The most important cancer-related finding is the size of the incidence rate, especially for men, which contrasts with the lower mortality rate. No major interprovincial differences were observed, although the decrease in mortality, and its effect on the survival, should be noted. The survival, which is calculated here for the first time, is of particular interest when studied for specific tumour sites due to the different diseases concerned, each of which has its own etiology, diagnosis, treatment and prevention. The analysis of the change in rates with time highlights those tumours which could pose a public health problem and which, on occasions, may be susceptible to specific interventions.



SA  
RRE  
RA



# SARRERA

Minbizia osasun-arazo larria izaki, biztanlerian oinarritutako Minbiziaren Erregistroak esan dezakegu direla gaixotasun-talde horrek biztanleria jakin baten gain duen magnitudearen berri izateko metodorik egokienak<sup>1</sup>. Osasunaren Munduko Erakundeak dioenez, minbizi-erregistroak gakoak dira minbizia kontrolatzeko estrategian<sup>2</sup>. Informazio-sistema horien bidez, gaixotasunen intzidentziaren, hilkortasunaren eta prebalentziaren adierazle epidemiologikoak —baita biziraupena ere— lortzen dira, eta datu horiek guztiak ezinbestekoak dira minbizia kontrolatzera bideratutako programa eta jardueren eraginkortasuna balioesteko.

1986. urtean sortu zen Minbiziaren Euskal Erregistroa<sup>3</sup>, eta 2006. urtera bitarte, 187.972 kasuri buruzko informazioa bildu da, Euskal Autonomia Erkidegoan diagnostikatutako tumore gaizto berriak, guztiak ere. Ezarritako prozedura nazioarteko irizpideen arabera koka izan da, sistematikoki, eta tumoreak sailkatu egin dira, emaitzak alderatu ahal izateko.

Horretaz gain, 1995. urtean ospitaletako minbizi-erregistroak sortu ziren hainbat ospitale publikotan eta, gaur egun, biztanleriaren minbizi-erregistroaren informazio-iturri dira. Urte hauetan guztietan, bildutako aldagaiak kodetzeko modua aldatu egin da, sortu diren nazioarteko hainbat sailkapenetara<sup>4</sup> egokitze aldera. Minbiziaren Euskal Erregistroak (MEE) datuen kalitatea neurtzeko erabiltzen dituen adierazleak hobetu egin dira arian-arian, datuak kontrolatzeko neurri zorrotzak txertatu ahala. Gainera, segurtasun-neurri handiagoak ezarri dira informazioaren erabateko konfidentzialtasuna eta babesa ziurtatzeko, lege berriei jarraiki<sup>5, 6</sup>.

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) biztanleriaren osieran aldaketa handiak izan dira eta 1. irudian ongi ikus daitezke gorabehera horiek. Biztanleria erroldaren bilakaeran ikus daitekeenez<sup>7</sup>, gazteak gero eta gutxiago dira eta 65 urtetik gorakoak, aldiz, gero eta gehiago; bereziki, emakumeak.

Tumore gaiztoa diagnostikatu dieten pertsonen heriotza-data jakitea funtsezkoa da pertsona horien biziraupenaren berri izateko. Horretaz gain, Heriotzen Indize Nazionala<sup>8</sup> sortuz gero, kasuen jarraipen zorrotza egin ahal izan da, biziraupenaren adierazlearen estimazioa egitea eta etorkizun hurbilean prebalentzia kalkulatzeko ahalbidetuz.

MEEren lehenengo emaitzak argitaratu zirenetik, urteko txostenak<sup>9</sup> egin dira, baita monografia bat ere, Minbiziaren Erregistroaren hasierako urteak bilduz<sup>10</sup>. Horrekin batera, *Cancer Incidence In Five Continents*<sup>11</sup> munduko minbizi-erregistro guztientzat erreferentziazkoa den argitalpena ere bidali ditugu datuak, beste eremu geografikoekin konparazioak egiteko.

Minbiziaren Euskal Erregistroan lortzen diren adierazleak lagungarriak izan dira bularreko minbiziaren eta kolon-ondesteko minbiziaren diagnostiko goiztiarreko programei buruz erabakiak hartzeko garaian (azken urteotan abiarazi dira programa horiek, EAE osoan), baita etorkizuneko osasun-planetatiko helburuak ezartzeko eta baliabide onkologikoak hobeto planifikatzeko ere.

Gainera, EURO CARE European biziraupenari buruzko azterlanaren hainbat ediziotan ere parte hartu dugu<sup>12</sup>, baita ACCIS (Automated Childhood Cancer

Information System) minbizia hurrengan proiektuan ere<sup>13</sup>. Funtzionamenduko urte hauetan guztietan, nazioko nahiz nazioarteko azterlan ugaritarako datuak eman ditugu, eta elkarte zientifikoek eta argitalpenen biltzar eta bileretan askotariko aurkezpenak egin ditugu. Horren adierazle dira Espainiako beste hainbat erregistroekin batera berriki argitaratu ditugun artikulak<sup>14</sup>.

Monografia honetan, hainbat atal aurkeztuko ditugu. Lehenik, datuen informazio-iturri buruzkoa, monografia honetan erabilitako definizioak, eta intzidentzia, hilkortasuna, biziraupena eta tasen bilakaera deskribatzeko aplikatu ditugun metodoak. Jarraian, aztertutako adierazleen emaitzen atala aurkeztuko dugu, EAEn 2002-2006 aldian minbiziak izandako intzidentziari eta 2004-2008 aldian minbiziak eragindako hil-

kortasunari buruzkoak bereiziz. Bi adierazle horietan komunak diren taulak lokalizazio guztiei dagozkie, gizonen eta emakumeen kasuan, eta Lurralde Historiko (LH) bakoitzean. EAEn, biziraupena ere adierazle bat da, eta 2000-2004 aldiari dagokio; bost urteko jarraipen aktiboa egin zaio, sexuaren eta LHren arabera. Azkenik, 1986. urtetik aurrera hiru adierazleek izan duten bilakaera aurkeztuko dugu, lokalizazio guztietan, eta xehetasun handiagoz eta modu grafikoagoan, hautatutako lokalizazioetan.

Monografia hau euskaraz eta ingelesez ere emana dago, eta bi itzulpenak disko batean jasota daude (atzeko azalean dago). Gainera, CDan Excell fitxategi bat ere badago, hilkortasunaren eta intzidentziaren tasak urtez urte zehaztuz; horiei esker, tasen bilakaera denboran zehar kalkulatu ahal izan dugu.

### 1. IRUDIA. BIZITANLEEN EBOLUZIOA, ADIN-TALDEAREN ARABERA. 1986-2006. EAE



Iturria: EUSTAT/Estatistikaren Euskal Erakundea.

## ERREFERENTZIAK

- <sup>1</sup> Jensen OM and Storm HH. Purposes and uses of cancer registration. In Jensen OM, Parkin DM, MacLean R, Muir CS, Skeet RG, eds: Principles and Methods. Lyon, France: IARC, 1991:7-21.
- <sup>2</sup> National Cancer Control Programmes. Policies and Managerial Guidelines, 2<sup>nd</sup> edition. World Health Organization. WHO press, Geneva, 2002.
- <sup>3</sup> Agindua, 1986ko azaroaren 6koa, Euskadiko Minbiziari buruzko Erregistroa sortzen duena. 1986ko azaroaren 17ko 225. EHAA. Lan, Osasunketa eta Gizarte Segurantzza Saila.
- <sup>4</sup> Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena Onkologiarako, hirugarren edizioa. Arg.: Fritz A, Percy C, Jack A, Shanmugaratnam K, Sobin L, Parkin DM, Whelan S. Osasunaren Munduko Erakundea, Washington, 2003.
- <sup>5</sup> 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzkoa, 1999. 298. EHAA.
- <sup>6</sup> Storm H H, Buiatti E, Hakulinen T, Ziegler H. Démarret E, Sankila R. Guidelines on Confidentiality in population-based cancer registration in the European Union. European network of Cancer Registries. European Commission against cancer. International Agency for Research on Cancer. Lyon, 2002.
- <sup>7</sup> <http://www.eustat.es/>
- <sup>8</sup> Navarro C. [The National Index : A largely expected advance in the access to mortality data]. Gac. Sanit 2006; 20:421-423
- <sup>9</sup> <http://www.osasun.ejgv.euskadi.net/>
- <sup>10</sup> Minbiziaren intzidentzia Euskal Autonomia Erkidegoan (1987-1991). Osasun Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 1977.
- <sup>11</sup> Cancer Incidence in Five Continents. Vol IX. Curado MP, Edwards B, Shin HR, Storm H, Ferlay J, Heanue M, Boyle P, Eds. IARC Scientific Publications N° 160. International Agency for Research on Cancer, Lyon 2007.
- <sup>12</sup> Berrino F, de Angelis R, Sant M, Rosso S, Lasota MB, Coebergh JW, Santaquilani M and the Eurocare Working Group. Survival for eight major cancers and all cancers combined for European adults diagnosed in 1995-99: results of the Eurocare-4 study. <http://oncology.thelancet.com> published online August 21, 2007
- <sup>13</sup> Steliarova-Foucher E, Coebergh JW, Kaatsch P, Pritchard-Jones K, Stiller C, Gest Editors. Cancer in children and Adolescents in Europe. Eur J Cancer, Special issue; 42, 13, 2006.
- <sup>14</sup> Borrás JM, Pollán M, Navarro C, Martínez C, Izarzugaza I, Peris-Bonet R., Ed. Co. Cancer Control in Spain: an assessment in a European context. Ann Oncology 2010; 21, Supplement 3.

# INFOR MAZIO-

ITURRIAK, DEFINIZIOAK ETA METODOA



# INFORMAZIO-ITURRIAK, DEFINIZIOAK ETA METODOA

## INFORMAZIO-ITURRIAK, DEFINIZIOAK ETA METODOA

### Informazio-iturriak

Minbiziaren Euskal Erregistroaren (MEE) informazio-iturriak askotarikoak dira; besteak beste, ospitale publiko guztiak, Gipuzkoako Institutu Onkologikoko minbizi-erregistroa eta EAEn minbiziaren diagnostikoa eta tratamendua egiten duten klinika eta laborategi pribatu gehienak.

1995. urteaz geroztik, Txagorritxu, Santiago, Gurutzeta, Basurtu, Galdakao eta Donostia ospitaleetan minbiziaren ospitale-erregistroa egiten dute. Harrezkero, ospitale-erregistro horiek dira ospitale horietako informazio-iturri eta ezinbestekoak dira biztanleriaren erregistroarako.

Horretaz gain, hilkortasun-erregistroak emandako informazioa ere hortxe dago. Minbiziaren ondorioz hildakoen datuak EAEko Heriotzen Estatistikatik ateratzen dira; estatistika hori Euskal Estatistika Erakundeak<sup>1</sup> egiten du, Estatistika Institutu Nazionalaren eta Osasun eta Kontsumo Sailaren laguntzarekin.

Nafarroako eta Errioxako minbizi-erregistroetatik eta Haurren Tumoreen Erregistro Nazionaletik ere ateratzen dira kasuak.

## DEFINIZIOAK

### Adierazleak

Adierazle hauek aurkeztuko ditugu: intzidentzia-tasak, hilkortasun-tasak eta biziraupen-tasak, baita

tasa horien bilakaera denboran zehar ere. Gainera, Minbiziaren Euskal Erregistroaren oinarritzko kalitate-adierazleak ere sartuko dira.

### Aztertutako aldian

Aztertutako adierazle bakoitzaren kasuan, eskuragarri dauden azken bost urteetako datuak multzokatu egin dira. Hartara, intzidentziari dagokionez, datuak 2002-2006 aldikoak dira; hilkortasunari dagokionez, 2004-2008 bosturtekoak, eta biziraupenari dagokionez, 2000-2004 aldikoak, 2010. urteko urtarrilaren 1a bitarte (alegia, bost urte) jarraipen aktiboa egingo da. Gainera, intzidentziaren eta hilkortasunaren tasak 1986tik 2006. urtera eta 2008. urtera, hurrenez hurren, izan dute bilakaera ere aurkeztuko da, baita biziraupenaren bilakaera ere, bosturtekotan multzokatu eta 2004. urtea azken urtea izanik.

### Biztanleria

EAEko Zentsua egin den urteetako (1986, 1991, 1996, 2001 eta 2006) biztanleria erabili dugu, adin-taldean, sexuaren eta LHren arabera. Eustat-ek eman dizkigu datuak. Errolda arteko urteetako biztanleria kalkulatzeko, hurbileneko bi zentsuen artean interpolazio/estrapolazio lineala egin da<sup>1</sup>.

### Kasu intzidentea

MEEen, tumore gaizto berri guztiak kasu intzidentetzat hartzen dira, betiere 1986ko urtarrilaren 1etik aurrera diagnostikatu badira eta EAEn bizi den pertsona baldin bada. Azaleko kartzinoma basozelularrak eta epidermoideak ez dira kontuan hartzen.



## 1. TAULA. BERARIAZKO LOKALIZAZIOAK

GNS-10	
<b>C00-C14</b>	<b>BURUA ETA LEPOA</b>
C00	Ezpaina
C01-02	Mihia
C03-06	Ahoa, beste zenbait
C07-08	Listu-guruinak
C09-14	Faringea
<b>C15-C26</b>	<b>DIGESTIO-APARATUA</b>
C15	Esofagoa
C16	Urdaila
C17	Heste meharra
C18	Kolona
C19-21	Ondeste-sigma lotura, ondestea eta uzkia
C22	Gibela
C23-24	Behazun-xixkua eta behazun-hodiak
C25	Pankrea
<b>C30-C34, C37-C38</b>	<b>ARNAS APARATUA</b>
C30-31	Sudurra eta sinuak
C32	Laringea
C33-34	Trakea, bronkioak eta birika
C37-38	Mediastinoa, pleura (ez mesotelioma) eta beste batzuk
<b>C40-41</b>	<b>HEZURRAK</b>
<b>C43</b>	<b>LARRUAZALEKO MELANOMA</b>
<b>C45</b>	<b>MESOTELIOMA</b>
<b>C46</b>	<b>KAPOSIREN SARKOMA</b>
<b>C47-49</b>	<b>NERBIOAK ETA EHUN BIGUNAK</b>
<b>C50</b>	<b>BULARRA</b>
<b>C53-C58</b>	<b>EMAKUMEEN ORG. GENITALAK</b>
C53	Umetoki-lepoa
C54	Umetoki-gorputza
C55	Umetokiko beste parte batzuk
C56	Obulutegia
C57*	Bestelako eta zehaztugabeko organo genitalak
C58	Plazenta
<b>C60-C63</b>	<b>GIZONEN ORG. GENITALAK</b>
C61	Prostata
C62	Barrabilak
C60, C63	Bestelako eta zehaztugabeko organo genitalak
<b>C64-C68</b>	<b>GERNU-ORGANOAK</b>
C64	Giltzurruna
C65	Giltzurrun-pelbisa
C67	Gernu-maskuria
C66, C68	Ureterra eta beste batzuk
<b>C69</b>	<b>BEGIA</b>
<b>C70-72</b>	<b>NERBIO-SISTEMA ZENTRALA</b>
<b>C73</b>	<b>TIROIDEA</b>
<b>C74-75</b>	<b>BESTE GURUIN ENDOKRINO BATZUK</b>
<b>C26, C39, C44, C76</b>	<b>LARRUAZALA (MELANOMA IZAN EZIK) ETA ZEHAZTU GABEKO BESTE BATZUK</b>
<b>C77-C80, C97*</b>	<b>GAIZKI DEFINITUTAKO LEKUA, ZEHAZTU GABEKO BESTE BATZUK</b>
<b>C82-C96</b>	<b>LINFOMAK ETA EHUN HEMATOPOIETIKOA</b>
C81	Hodking-en gaixotasuna
C82-85, C96	Ez Hodgkin linfoma
C88	Gaixotasun immunogalkor gaiztoak
C90	Mieloma anizkoitza
C91	Leuzemia linfatikoa
C92-93	Leuzemia mieloidea eta monozitikoa
C94-95	Beste zenbait leuzemia
C77, C96, D45-47*	Beste ehun linfatiko, hem. eta zehaztugabe batzuk
<b>C00-97</b>	<b>LOKALIZAZIO GUZTIAK</b>

**Erabilitako sailkapenak**

MEEren hasieratik, Onkologiarako Nazioarteko Sailkapenak proposatutako bertsioak erabili izan dira tumore gaiztoak kodetzeko, lokalizazioetarako eta morfologiarako. Hala ere, eta azterlan honetarako, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren 10. bertsioa<sup>2</sup> erabili dugu, kode berean biltzen baititu lokalizazioak eta morfologiak.

Heriotzaren arrazoiak Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren bederatzigarren bertsioaren (GNS-9) arabera kodetu dira 1986-1998 urteei dagokienez, eta hamargarren bertsioaren (GNS-10) arabera 1999-2008 urteei dagokienez<sup>2</sup>.

**Lokalizazioak**

Azterlan honi dagokionez, lokalizazioa zera da, tumore gaizto bat kokatuta dagoen edozein toki anatomiko. Horretaz gain, mota histologiko jakin batzuk ere sartu ditugu (interesgarriak direlako), diagnostikatu diren toki anatomikoa edozein izanik ere: azaleko melanoma, mesotelioma, Kaposiren sarkoma, leuzemiak eta linfomak.

Minbiziari buruzko monografia honetan, honako termino hauek sinonimotzat jo dira: tumore gaiztoak, lokalizazio tumoralak eta minbizia. Eta errepikakorrak ez izatearren, batzuetan aurreko terminoak alde batera utzi, eta toki anatomikoa soilik aipatzen dugu; adibidez: urdaila, urdaileko minbiziari buruz ari gara.

Lokalizazio Guztiak terminoa —taulen azkeneko leerroan agertzen da, ohiko moduan— tumore gaizto guztiei dagokie (betiere bi sexueta bati, Lurralde Historiko edo bestelako ezaugarriren bati dagokionez), ez taulan agertzen diren lokalizazio hautatuak soilik.

1. taulan, tumore gaiztoen intzidentziaren eta hilortasunaren kasuan aztertu diren lokalizazio espezifikoak zehazten dira, baita «Lokalizazio guztiak» ere. Hainbat lokalizaziotan, kasu intzidentziaren eta heriotzaren definizioa ez datoz bat (esaterako, tumore sekundarioak edo zenbait hematopoietikoa); beraz, lokalizazioen edukian aldaketaren bat izango da, eta kasu horretan, izartxo batez markatuta agertuko dira, baina, oro har, oso antzekoak dira. Hori horrela izanik, intzidentziari dagokionez, Beste ugaltze-organoko batzuk eta zehaztu gabek (C57) atalean bulbako eta baginako tumore gaiztoak ere sartzen dira;

Gaizki definitutako beste lokalizazio batzuk, sekundarioak eta anizkoitzak (C77-80, C97) atalean, Leku primario ezezagunari dagozkionak soilik sartzen dira intzidentzian, kasu intzidentearen definizioan sekundarioak eta anizkoitzak ez direlako aintzat hartzen. Bestalde, hilkortasunean ez da sartzen Beste ehun batzuk linfatikoak, hematopoietikoak eta zehaztuga-beak atala.

Intzidentziaren, hilkortasunaren eta biziraupenaren tasek denboran zehar izan duten bilakaera balioesteko, lokalizazio tumoral gutxiago hautatu ditugu eta 2. taulan ikus daitezke.

2. TAULA. BEHIN-BEHINEKO EBOLUZIOA AZTERTZEKO LOKALIZAZIOAK

GNS-9	GNS-10	LOKALIZAZIOAK
140-149	C00-C14	BURUA ETA LEPOA
150	C15	ESOFAGOA
151	C16	URDAILA
153	C18	KOLONA
154	C19-21	ONDESTE-SIGMA LOTURA, ONDESTEIA ETA UZKIA
155	C22	GIBELA
157	C25	PANKREA
161	C32	LARINGEA
162	C33-34	TRAKEA, BRONKIOAK ETA BIRIKA
172	C43	LARRUAZALEKO MELANOMA
174-175	C50	BULARRA
180	C53	UMETOKI-LEPOA
179, 182	C54-C55	UMETOKI-GORPUTZA, BGZ UMETOKIA
183.0	C56	OBULUTEGIA
185	C61	PROSTATA
186	C62	BARRABILAK
189.0	C64	GILTZURRUNA
188	C67	GERNU-MASKURIA
191-192	C70-72	NERBIO-SISTEMA ZENTRALA
193	C73	TIROIDEA
201	C81	HODKING-EN GAIXOTASUNA
200, 202	C82-85, C96	EZ-HODGKIN LINFOMA
203.0.1	C90	MELOMA ANIZKOITZA
204-208	C91-C95	LEUZEMIAK
140-208, 273.3	C00-C97	LOKALIZAZIO GUZTIAK

## METODOAK

### Intzidentzia eta hilkortasuna

Intzidentziaren eta hilkortasunaren adierazleen bidez minbiziaren magnitudea neurtzen da. Lehena diagnostikatutako kasu berriei dagokie, eta bigarrena minbiziaren eraginez hildako pertsonen, aldi jakin batean (2002-2006 eta 2004-2008, hurrenez hurren), betiere EAEn eremu geografikoan.

Arriskuan dagoen biztanleria aldi jakin batean kontuan izaten denean, tasak lortzen dira. Hainbat tasa kalkulatu ditugu:

- Tasa gordinak, minbiziaren magnitudea neurtzeko biztanleria guztiari dagokionez. Minbiziak dakarren arriskuaren konparazioak egiteko baliagarriak dira, baina mugatuta, bereziki, hainbat adin-talde dandean edo aldaketa demografikoek biztanleriaren tamainari eta egiturari eragiten diotenean, aldi osoan. Ohiko moduan, emaitza honela adierazten da: arriskuan dauden 100.000 pertsona bakoitzeko urteko tasa.
- Horregatik, adin-taldearen arabeko tasa espezifikoak kalkulatu ohi dira eta, ohiko moduan, bost urteko adin-taldeein dagokienez, 100.000 biztanleko (azterlan honetan 19 talde dira).
- Horretaz gain, minbiziak sexu bakoitzean patroiz ezberdinak dituela kontuan izanik, gizonen eta emakumeen tasak kalkulatu dira.
- Biztanleria eta minbizi-arriskuak *a priori* nahiko homogeneoak diren arren, LH bakoitzeko tasak kalkulatu dira, aldeak atzemateko (balidin badaude).
- Konparazioak errazago egitearren, adinaren arabeko tasa estandarizatuak ere kalkulatu dira, biztanleria ezberdinen artean arriskua konparatzeko. Bi biztanleria estandar erabiltzen dira: bata mundukoa eta bestea Europakoa<sup>3</sup>; adin-talde bakoitzean garrantzi ezberdina dute. Metodo zuzena erabili da.

